

KRONIKA.NET



ASTIGARRAGA - TXOTX IREKIERA

‘Sagarra jo!’ abestuz ireki du txotx denboraldia Kalakanek

Atzo izan zen txotx irekiera Astigarragan. Sagardo berria, lehorra, txinparta finekoa, orekatua eta freskagarria dela azaldu zuten.

2014/01/16 - Osteguna

modu berezian ireki zuten atzo astigarragako txotx denboraldia, kalakan musika taldeko kideek. munduan hain ezagun egin dituen sagarra jo! abestia ekarri zuten, aurreneko txotxa egiteko momentura. urteroko ohiturari ere eutsi zioten, «gora gure sagardo berria» esanez. jamixel bereauk azaldu zuen, sagarrak eta kalakanek beti izan dutela lotura berezi bat, eta baita sagardoak ere. halako momentu garrantzitsu bat eurekin ospatu nahi izatea «ohore bat» dela gaineratu zuen. txotx irekiera alorrenea sagardotegian egin zen eta bertan elkartu ziren astigarraga eta inguruko herrietako udal ordezkari, arduradun, sagardogile eta eragile mordoxka. fruitu freskoaren sentazioa aurretik, prentsaurrekoa izan zen eta joxe angel goñi sagardogileen ordezkariak sagardo berriaren ezaugarriak azaldu zituen: «hori-berdexka koloreko sagardoa da, lehorra, txinparta finekoa eta ahoan fruitu freskoaren sentazioa uzten duena. sagardo orekatua, freskagarria eta arina zain dugu gure sagardotegietan».



Zabaldu!

Atzera egin | Inprimatu | Norbaiti bidali

HERNANIARRAK

GEHIGARRIA: Zaindu zeure burua

Ibilbide Sarea:
Urruzuno

Ibilbide Sarea:
Larregain

Ibilbide Sarea:
Oberan

Ibilbide Sarea:
Usokori bira

Ibilbide Sarea:
Sagardotegiak



**BESTE
HEDABIDEAK**
TOKIKOM

NOAUA! ASTEKARIA:
?NERABEEN
SEXUALITATEA?
GURASO ETA
HEZITZAILEEI
ZUZENDUTAKO SEXU
HEZIKETA IKASTAROA.
IZENA EMATEKO EPEA
IREKIA

NOAUA! ASTEKARIA:
Txotx denboraldi berria,
inauguratua gaurtik

NOAUA! ASTEKARIA:
Usurbil, Aginaga eta
Zubietako
sagardotegiak,
denboraldi berriari
ekiteko prest